

AUTOEBALUAZIO ARIKETAK

6.GAIA

Irakasle taldea
ELORDI GÜENAGA, UDANE
HUITZI EGILEOR, JOSEBA XABIER
IZAGIRRE OTAEGI, ANDREA
UGARTEMENDIA YEROBI, MAIDER
URANGA ITURRIOZ, MARÍA JOSÉ
ZUBELDIA ETXEBERRIA, JOSUNE

1. Nork parte hartzen du practicumaren kudeaketan?
 - a. Praktiken Programaren arduradunak (PPA).
 - b. Fakultateko/Ataleko Batzarrak.
 - c. Kanpoko erakunde laguntzaileek.
 - d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

2. Zer eginkizun ditu Zentroko Praktiken Batzordeak?
 - a. Practicumeko irakasgaien irakaskuntza gidak onartzea.
 - b. Praktiken eskaintza aplikazio informatikoan grabatzea.
 - c. Zentroko Praktiken Araudia berrikustea eta eguneratzea.
 - d. Tutoretzen protokoloan ezarritakoa betetzea.

3. Zer eginkizun dituzte practicumeko irakasgaien irakasle arduradunek?
 - a. Ikasleei irakasle tutoreak esleitzea.
 - b. Ikasleen ebaluazioa berrikustea, eta ikasgaiaren aktan kalifikazioa jartzea.
 - c. Ikasleen harrerako protokoloa eskatzea kanpoko erakunde laguntzaileetako arduradunei.
 - d. Praktikekiko gogobetetze inkestak betetzea.

4. Ikasturtea amaitzean:
 - a. Zentroak antolatutako informazio saioetara joaten dira irakasle tutoreak.
 - b. *Venia docendi* ziurtagiria bidaltzen zaie inktoreei.
 - c. Irakasle tutoreek tutoretza protokoloan ezarritakoa betetzen dute.
 - d. a eta b erantzunak dira zuzenak.

5. Nori dagokio zeregin hauetako bakoitza?
 - a. Ikasleei harrera egitea praktikak egingo dituzten zentroan:
 - b. Egiaztatzea 2., 3. eta 4. mailako ikasleek modu egokian hautatu dituztela plazak automatrikulan:
 - c. Egindako hobekuntza proposamenak eta kexak baloratzea, eta horiei erantzutea:
 - d. Kanpoko erakunde laguntzaileekin hitzarmenak sina daitezen sustatzea eta proposatzea:

ERANTZUNAK

Galdera zenbakia	Erantzun zuzena
1	d
2	c
3	b
4	b
5	a. Pertsona instruktorea. b. Practicum irakasgaiko irakasle arduraduna. c. Zentruko praktiketako batzordea. d. Praktika programaren arduraduna.